

**LABURPEN FITXA: KSI-ENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIA: IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA  
(KSI 2024)**

<b>Epea eta eskaerak aurkeztea (10. art.)</b>	<p>2024ko apirilaren 25tik maiatzaren 27ko 14:00etara. Egoitza Elektronikoaren bidez (<a href="http://www.araba.eus">www.araba.eus</a>), edo pertsona fisikoak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian (Probintzia plaza 5, behea).</p> <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Eskatzaile bakoitzak mota bakoitzeko gehienez ere bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu; nolahi ere, pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal du dirulaguntza. Deialdi berean ezin izango da proiektu bera aurkeztu laguntza mota batean baino gehiagotan. Proiektu bera hiru aldiz aurkeztu ahal izango da, gehienez, laguntza mota berean.</li><li>➤ Dirulaguntza hauen aurreko deialdietan dirulaguntza jaso duten proiektuak ezin izango dira berriz aurkeztu mota berean.</li></ul>
<b>Dirulaguntza emateko prozedura (1. art.)</b>	<p>Norgehiagoka bidez.</p>
<b>5 dirulaguntza mota (2. art.)</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Zinemako, plataforma digitaletako eta telebistako proiektuak gauzatzea</li><li>2. Zinema film luzeak eta sorkuntza dokumentalak ekoiztea</li><li>3. Film laburrak ekoiztea</li><li>4. Telesailak ekoiztea</li><li>5. Gidoiak idaztea</li></ol>
<b>Zenbatekoak (7.art)</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>➤ 1. mota: gehienez 15.000,00 €</li><li>➤ 2. mota: gehienez 20.000,00 €</li><li>➤ 3. mota: gehienez 10.000,00 €, salbuespenez, 15.000,00 €</li><li>➤ 4. mota: gehienez 60.000,00 €</li><li>➤ 5. mota: 10.000 euro. Ez da bateragarria beste laguntza batzuekin.</li></ul>
<b>Onuradunen betekizunak (4. art.)</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>➤ Onuradunek egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan izan beharko dute.</li><li>➤ Zinemako eta telebistako proiektuak gauzatzeko laguntzen eta ikus-entzunezko lanak ekoizteko laguntzen kasuan (1., 2., 3. eta 4. motak) onuradunak pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak izan ahal dira, baldin eta haien jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea 961.1 bada eta Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuan (ICAA) erregistratuta badaude.</li><li>➤ Gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (5. mota), onuradunak izan ahal dira jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak (JEZaren 864 epigrafea).</li><li>➤ Onuradunek egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzako zerga betebeharrak.</li><li>➤ Aurreko betekizunak eskaria aurkezteko unean bete beharko dira eta dirulaguntzaren prozesu guztian mantendu beharko dira (esleipena, betebeharra onartzea, ordainketa eta justifikazioa).</li></ul>
<b>Aurkeztu beharreko agiriak (11.art)</b>	<p><b>1, 2,3 y 4 motak</b> Eskatzailearen dokumentazioa:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Dirulaguntzaren onuradun izan nahi duenaren nortasunaren egiaztagiria</li><li>2. Dagokion JEZeant emanda egotearen ziurtagiria</li><li>3. Zinematografia eta Ikus Entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) erregistroaren I. atalean (Ekoizpena), izena emanda egotearen ziurtagiria</li></ol> <p>Proiektuaren dokumentazioa:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>4. Beste dirulaguntza batzuen erantzukizunpeko adierazpena</li><li>5. <u>Proiektuaren memoria (*)</u></li><li>6. Gidoiaren sinopsia</li><li>7. Gidoia, edo gidoirik ez badago, gidoiaren tratamendua</li><li>8. Jatorrizko gidoiaren eta/edo aurretiko lanaren jabetza eskubideen ziurtagiria</li><li>9. Zuzendariak eta gidoilariak garapen- edo produkzio-proiekturako proposatutako onarpen idatzia.</li></ol> <p>Dokumentazio osagarri</p> <ol style="list-style-type: none"><li>10. Ekoiztetxearen historiala (eranskinaren arabera), eta ekoizpen agiriak eta aurreikuspenak</li><li>11. Zuzendariaren eta gidoilariaren historial artistiko profesionala, eta txarteldegietako emaitzak, jasotako sariak eta espezializatutako komunikabideen kritikak jasotzen dituen dokumentazioa</li><li>12. Zuzendaritza-lanetan, ekoizpen exekutiboan, gidoian, argazki-zuzendaritzan eta/edo musika-konposizioan emakumeak daudela egiaztatzen duten kontratuak edo, halakorik ezean, erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo gutun interesgarriak.</li></ol>

13. Koprodukzioko kontratuak, baleude
14. Proiektuak Araban erakusteko konpromisoa, hala badagokio
15. 1. mota, gainera: zuzendariak eta/edo gidoilariak egindako obretarako estekak, Araban bizi diren erantzukizunpeko adierazpenak eta/edo proiektuan parte hartzen dutenen gutun sinatuak, koproduktoreak, elkartutako ekoizleak eta banatzaileak bilatzeko plana.

(\*) **Proiektuaren memoria**, honako hauek jasoko dituen:

- a) Proiektuaren mota eta ezaugarri teknikoak
- b) Proiektua maila artistikoan azaltzea: asmoak, historia, erreferentziak. Produzioan: fitxa teknikoa eta artistikoa.

1 mota:

- c) Garapen-plana, aurreikusitako ekintzekin eta egutegiarekin.
- d) Aurrekontu banakatua, partiden eta finantzaketa-planaren arabera.
- e) Gutxi gorabeherako ekoizpen-aurrekontu globala eta haren finantzaketa-plana

2.,3., eta 4 motak:

- c) Ekoizpen-plana, aurreikusitako egutegia eta filmaketa-plana barne, denbora eta kokalekuak adierazita.
- d) Proiektuaren aurrekontu zehatua, partiden arabera zehaztua (ICAAren eredu) (film laburren kasuan, nahikoa da kapituluko laburpen-orria aurkeztea).
- e) Finantzaketa plana eta finantzaketa iturriak (ereduaren arabera)
- f) Merkaturatze eta banatze plan zehatua

**5. mota :**

Honako dokumentu hauek jatorrizko hizkuntzan aurkeztu beharko dira, egilea identifikatzeko moduko inolako bereizgarririk gabe:

1. Gidoiaren proiektuaren argumentu sinopsia, 1 eta 3 orrialde artekoa
2. Gidoi proiektuaren tratamendu sekuentziatua, 15 eta 30 orrialde artekoa
3. Elkarrizketa sekuentzia, 3 eta 5 orrialde artekoa
4. Proiektua azaltzen duen memoria

Gainera, behar bezala betetako eskabidearekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

5. Dirulaguntzaren onuradun izan nahi duenaren nortasunaren egiaztagiria
6. JEZaren 864 epigrafean altan egotearen ziurtagiria
7. Gidoilariaren ibilbide artistikoa
8. Erantzukizunpeko adierazpena (eranskina: gidoiak) eta erregistratutako gidoiak eta aitopenen egiaztatzen dituen dokumentazioa, balego
9. Beste laguntzarik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena

**Araudia eta  
laguntzak emateko  
arabidea**

Dokumentu honetan aipatzen diren artikulua laguntza honen deialdia onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 16ko 205/2024 Erabakian jasotzen dira, zeina 2024ko apirilaren 24ko ALHAOn, 47. zk., argitaratu baitzen. *Fitxa honetan ematen den informazioa deialdiaren bertsio sinplifikatua da, eta ez da loteslea.*

**Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saila**

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua  
Probintzia plaza 5, 1., 01001 Gasteiz

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Tel: +34 945 181818 (luzapena: 52422)  
www.araba.eus  
E-maila: [icc@araba.eus](mailto:icc@araba.eus)